

Sarrera

Hemen duzu, irakurle horrek, BAT aldizkari honen IX. alea. Ale trinkoa, mamitsua, ospe handiko jendeen iritziz oratua. Ale kezka garria ere bai, bestetan bezala; azaltzen zaizkigunak arretaz hausnarturik, nekez alden baitaiteke euskaltzale finarengandik halako zalantza-giroa. Alegia: zer gerta ote dakioko azkenean gure nazio-hizkuntzari?

Hizkuntzaren berreskurapena, Mackey kanadatarrek ongi azaltzen duenez, prozesu anizkuna eta korapilotsua da. Gure arteko batzuren errazkeriak astinduz, Mackeyk gordinki esaten digu: hizkuntzaren berreskurapena "ez da fenomeno autonomoa". Lau izari ditu, elkarri errotik eratxekita: "Kultura, Demografia, Geografia, Politika". Horra hor arazoaren kokagunea. "Gerokoak gero" famatu horrek, bestalde, behin eta berriz erakutsi du ondorio nabarmena: berreskurapena ez da mamitzen. Irlandan ikusitakoa, jakina. Baina baita Indian gertatutakoa ere: hindi-ak ez du ingelesa ordezkatu. Haserako "hamar urte" haiek, hoge, hoge-ta-hamar... bihurtu dira. (Eta Mackeyk ez du Arjeliako kasoa aipatzen artikuluko horretan: "mementuz" onartu zutena, hor dago tinko frantsesa ere Arjelia berrian). "Masa kritikoa"ren ideia, Kanadan bertan Quebec-tarrek topatu duten inertzia, gaitasun-mailaren arazoa..." Inor ez da mintzatzen mintzatzeagatik, hizkuntz ikastaroetan izan ezik... Behin eta berriz irakurtzeko moduko artikuluko mamitsua.

Argemi katalanak, berriz, azken urte hauetako emaitzak gogorazten dizkigu. "Autonomia" omen dugun herriotan, hizkuntza zapalduaren ezaguera-maila igo da, hau bai; baina erabilpenaren alorrean ezer gutxi aurreratu da. (Eta hori Kataluñan!). Autonomi-Estatutuek "irtenbiderik gabeko" zulo batean sartu gaituzte. Hizkuntzen arazoa ez baita maila pertsonalekoa; multzo mailakoa baizik.

Oso gardena eta oso mamitsua Bachoc baxenabartar erakaslearen lana. "Herriaren arima hizkuntza da, herriaren gorputza, berriz, erakunde politikoa". Idei bilduma polita. Edo-ta, bide beretik, herrien burujabetzaren hiru osagaiak ematerakoan: "politika-nagusitasuna, hizkuntzaren berreskurapena, eta ekonomiaren garapena". Eta oso argigarria Irlanda eta Quebec errotik kontrajartzea. Egokia, bide beretik, elebitasunari

buruzko jarrera kritikoa: "elebitasunak eman dio gaelikoari azken ukaldia". Eta zorrotza eta zuzena borroka "salbaia" eta borroka "zibilizatua"ren arteko desberdinketa; biek, funtsean, hizkuntza zapalduaren suntsiera bilatzen baitute.

Oso ekarpen mamitsua Iztueta soziologilariak eman diguna. Alde batetik, Mackey-ren bide beretik, hizkuntza arazoaren autonomiarik eza azpimarratzen du. Hizkuntz komunitateak gertatzen dira borrokan, gizarteek oro dituzten konplexutasun eta aniztasun guztiekin. Hizkuntzari buruzko ikuskera "apolitikoak", hutsaren hurrena dira (honetan Odriozolak era gauza bera berriki azpimarratzen zigunez). Irlanda maiz aipatzeak, hain zuzen, salbuespena besterik ez dena erregela bihurtu nahi du; borroka politikoa ahultzeko, eta arazoa des-politizatzeke. Hots, Iztuetaren ustez, hizkuntz arazoa botere-arazoa da osoki. Euskararen arazoa, partikularki, "gure nazio-proiektu amankomunaren helburu nagusia da", hain zuzen. Hitz batez, euskararen berreskurapenak Euskal Estatu eraikitzea garamatza.

Laporte kanadatarraren elkarrizketa luzea (Paulo Agirrebaltzategik eta Joseba Alvarez-ek bildua) guztiz mamitsua da. Nahiz, jakina, Quebec-tarrak euskaldunen aurretik oso urruti joan. Hizkuntz normalizatzeko lanetan ari diren funtzionarioen pilo gaitzak aztoratu ere egiten gaitu. Frantsesa bera hizkuntza normalizatua izanik ('copus'ari dagokionez), quebec-tarrak Quebec-en jaun-da-jabe izanik... Pikondoaren adaburuan kulunkatzen ari ote garen kezka sortzen zaio irakurleari... Zer pentsa dezake euskaldun batek, adibidez, ETB euskaldunak eta "Egunkaria" jasaten duten tratua ezaguturik? Irakur, otoi, elkarrizketa hori. Kontutan har, adibidez, erreklamaren hizkuntzei buruzko gogortasun harrigarria; eta hemen ezagutzen duguna aldera ondoren...

Siadeco-ren bi lanak oso praktikoak izan daitezke inkesta-lanetan eta erabilpen-neurketetan ari diren teknikarien lanean. Aspaldiko partez gure hizkuntzaren neurketa sakontzen eta hedatzen ari den une honetan, oso erabilgarria gerta daitezke datu eta data-horri horiek. Erruz baliatuko ahal dira. Tolosa-ko neurketak lortutako emaitzek, horretara, ongi erakusten dute gure hizkuntza gaur zertan den oso herri euskalduntzat hartua den horretan. Gauza bera esan daiteke telefonozko erabilpenaz.

"Oinarriak" izeneko Elkartearen gorabeherak eta berriak, aldiz, oso interesgarriak; eta nafatar euskaltzaleek bizi duten drama beltzaren erakusgarri balios. Erantzuna ere, dena dela, hor dago. Eta astero biltzen diren talde saiatu horiek, zalantzarik ez, piskanaka lortuko dute beren uzta.

Odriozola-ren irakurketa-lana, azkenik, orrialde hauetan ohizko bihurtua, oso mamitsua. Tejerinaren beraren liburua irakurtzera bultzatuko ditu irakurleak. Hizkuntzaren "balio sinbolikoa" besterik ez somatzeko arriskua, dudarik gabe, hortxe dago oraindik. Batez ere Euskal Herrian folklore bitxi bat besterik ikusten ez dutenen artean. Tejerinaren kritika zorrotzak ongi-etorria merezi du alde batzutatik.

Baina, otoi, ez dadila inor gera "Sarrera" honen irakurketan. Segi aitzina. Ez zaizue damutuko.

Txillardegi